Esp. kod.: 2025CHOZ0015
Titularra: Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoak

Gaia: Udaran autobus zerbitzua Udala auzora
Hasiera eguna: 2025/03/05

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, UDALA AUZOARA (UDA GARAIAN) BUS BIDEZ BIDAIARIEN HIRI GARRAIOKO ZERBITZU PUBLIKOA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA IREKIA ARAUTZEN DUENA. KONTRATAZIO MOTA: IREKI SINPLIFIKATUA.

PLIEGO DE CLÁUSULAS TÉCNICAS RECTOR DEL PROCEDIMIENTO ABIERTO PARA LA ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO PÚBLICO DE TRANSPORTE URBANO DE VIAJEROS EN AUTOBÚS AL BARRIO UDALA (TEMPORADA ESTIVAL). TIPO DE CONTRATACIÓN: ABIERTO SIMPLIFICADO.

1.- XEDEA. / OBJETO	2
2.- KONTRATUAREN IRAUPENA / DURACION DEL CONTRATO	2
3.- ZERBITZUKO EGUNAK ETA HILABETEAK / DIAS Y MESES DE SERVICIO	2
4.- ZERBITZUAK ETA ORDUTEGIAK / SERVICIOS Y HORARIOS	2
5.- LINEA ETA GELTOKIA / LINEA Y PARADAS	3
6.- ZERBITZUA ABIAN JARTZEA / PUESTA EN MARCHA DEL SERVICIO	3
7.- BALDINTZA EKONOMIKOAK / CONDICIONES ECONOMICAS	3
8.- PERTSONALA / PERSONAL	4
8.1.- OROKORTASUNAK / GENERALIDADES	4
8.2.- PLANTILLA / PLANTILLA	4
8.3.- LANGILEEI DAGOZKIEN BETEBEHARRAK / OBLIGACIONES EN CUANTO A PERSONAL	4
8.4.- KOMUNIKAZIOAK / COMUNICACIONES	5
8.5.-UNIFORMITATEA / UNIFORMIDAD	5
8.6.- ORDUTEGIA / HORARIOS	5
9.- IBILGAILUA / VEHICULO	6
9.1.- IBILGAILUEN BALDINTZA OROKORRAK / VEHICULOS CONDICIONES GENERALES	6
9.2.- IBILGAILUEN MANTENTZEA / MANTENIMIENTO DE VEHICULOS	7
10.- BILLETEEN MEKANIZAZIOA / MECANIZACION DEL BILLETAJE	7
11.- INSTALAZIOAK / INSTALACIONES	7
12.- KONTROL SISTEMAK / SISTEMAS DE CONTROL	8
12.1.- LAN PARTEAK / PARTES DE TRABAJO	9
13 ZERBITZUEREN PREZIOA ETA ZERBITZUA ZELAN ORDAINDU PRECIO Y FROMAS DE PAGO DEL SERVICIO	9
14.- BILLETEAREN PREZIOAK BERRIRO AZTERTZEA / REVISION PRECIOS DEL BILLETE	10
15.- ZERBITZUAREN ALDAKETAK / MODIFICACIONES DEL SERVICIO	10
16.- NAHITAEZ BETE BEHARREKO INGURUMEN GAIAK TEMAS MEDIOAMBIENTALES DE OBLIGADO CUMPLIMENTO	10
16.1.- PROPULTSIO BIDEA / MEDIO DE PROPULSION	10
16.2.- MATERIALAK ETA ONTZIAK / MATERIALES Y ENVASES	10
16.3.- ZARATAK / RUIDOS	11
16.4.- MAKINAK, GAS EMISIOAK / MAQUIARIA, EMISION GASES	11
16.5.- HONDAKIN ARRISKUTSUAK / RESIDUOS PELIGROSOS	11
16.6 BESTE HONDAKIN BATZUK / OTROS RESIDUOS	11
17.- PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA AZALPEN MEMORIA (GUTUN AZAL BAKARRA) PROPOSICION ECONOMICA Y MEMORIA EXPLICATIVA (SOBRE UNICO)	11
18.- DIRULAGUNTZA PPUBLIKOAK ETA PRIBATUAK / SUBVENCIONES PUBLICAS Y PRIVADAS	12
19.- PUBLIZITATEA / PUBLICIDAD	12
1. ERANSKINA / ANEXO 1	13
2. ERANSKINA / ANEXO 2	14
3. ERANSKINA / ANEXO 3	15

Esp. kod.: 2025CHOZ0015
Titularra: Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoak

Gaia: Udaran autobus zerbitzua Udala auzora
Hasiera eguna: 2025/03/05

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, UDALA AUZOARA (UDA GARAIAN) BUS BIDEZ BIDAIARIEN HIRI GARRAIOKO ZERBITZU PUBLIKOA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA IREKIA ARAUTZEN DUENA	**PLIEGO DE CLÁUSULAS TÉCNICAS RECTOR DEL PROCEDIMIENTO ABIERTO PARA LA ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO PÚBLICO DE TRANSPORTE URBANO DE VIAJEROS EN AUTOBÚS AL BARRIO UDALA (TEMPORADA ESTIVAL). TIPO DE CONTRATACIÓN**
1.- XEDEA	**1.- OBJETO**
Agiri honen xedea da deialdi bateko baldintza teknikoak ezartzea, Arrasateko Udala auzora asteburuetan udako hilabeteetan hiri garraioko zerbitzu publikoaren ustiatzea adjudikatzeko prozedura arautu behar dutenak. Kontuan hartuko da zerbitzua Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren teknologia plataforman MUGI sisteman sartuta badago.	El objeto de este pliego es establecer las condiciones técnicas que han de regir en la convocatoria de procedimiento para adjudicar la explotación del servicio público de transporte urbano de viajeros dentro del término municipal de Arrasate, al barrio de Udala durante los fines de semana en los meses de verano. Se valorará su integración en la plataforma tecnológica de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa-sistema MUGI.
2.- KONTRATUAREN IRAUPENA	**2.- DURACION DEL CONTRATO**
Urtebete, beste urtebetez luza daitekeena, gehienez bi urtez.	Un año, prorrogable por un año más, máximo dos años.
3.- ZERBITZUKO EGUNAK ETA HILABETEAK	**3.- DIAS Y MESES DE SERVICIO**
Udala auzoari zerbitzua udako hilabeteetan emango da, gutxi gorabehera ekainaren erdialdetik irailaren erdialdera (1. ERANSKINA zerbitzuaren egutegia.	El servicio al barrio de Udala se realizará en los meses de verano, aproximadamente de mediados del mes de junio a mediados del mes de septiembre (ANEXO 1 calendario de servicio)
Udala auzoari zerbitzua ostiral, larunbat eta igandeetan bakarrik emango da.	El servicio al barrio de Udala únicamente se dará los viernes, sábados y domingos.
4.- ZERBITZUAK ETA ORDUTEGIAK	**4.- SERVICIOS Y HORARIOS**
Zerbitzuko 3 egunetan, ostiral, larunbat eta igandeetan, egunean 15 zerbitzu emango dira (zerbitzu osoak igoera eta jaitsiera barne hartuko ditu).	Durante los 3 dias de servicio, viernes, sábados y domingos se darán 15 servicios al día (el servicio completo incluirá subida y bajada).
Zerbitzuen ordutegiak honako hauek izango dira: 10:00 11:00	Los horarios de los servicios serán: 10:00 11:00 12:00

12:00 13:00 14:00 14:30 15:00 15:30 16:00 16:30 17:00 18:00 19:00 20:00 21:00	13:00 14:00 14:30 15:00 15:30 16:00 16:30 17:00 18:00 19:00 20:00 21:00
5.- LINEA ETA GELTOKIAK	**5.- LINEA Y PARADAS**
Udala auzorako zerbitzuak linea zirkular bakarra izango du, Arrasatetik abiatu, Udala auzora igo eta Arrasatera jaitsiko dena.	El servicio al barrio de Udala constará de una única línea circular, que partirá de Arrasate, subirá al barrio de Udala y volverá a bajar a Arrasate.
Linearen luzera 9,05 km-koa da igoeraren eta jaitsieraren artean, planoan neurtuta (malda kontuan hartu gabe).	La longitud de la línea es de 9,05 km entre subida y bajada, medido sobre plano (sin tener en cuenta la pendiente).
Lineak 3 geltoki izango ditu, bi hirigunean, eta hirugarrena Udala auzoan. Geralekuak hauek dira: - San Frantzisko - Erguin - Udala auzoa	La línea constara de 3 paradas, dos en la zona urbana, y la tercera en el barrio de Udala. Las paradas son: - San Frantzisko - Erguin - Udala auzoa
2. ERANSKINEAN ibilbidearen eta geralekuen planoa erantsi da.	En ANEXO 2 se adjunta plano del recorrido y paradas.
Iraupena gutxi gorabehera, tarteko geldialdiak barne, 25/30 minutu.	Duración estimada incluidas paradas intermedias 25/30 minutos.
6.- ZERBITZUA ABIAN JARTZEA	**6.- PUESTA EN MARCHA DEL SERVICIO**
Zerbitzua 2025eko ekainaren 20an hasiko da, eta egun horretarako behar diren baliabide guztiak erabili beharko dira.	El servicio comenzará el 20 de junio de 2025, fecha para la cual deberá contarse con la totalidad de medios necesarios.
7.- BALDINTZA EKONOMIKOAK	**7.- CONDICIONES ECONOMICAS**
Kontratistak, bere eskaintzan, zerbitzuaren kostu ekonomikoa adieraziko du, kontuan izanik bildutako diru guztia Udalarentzat izango dela.	El contratista en su oferta indicará el costo económico del servicio, teniendo en cuenta que la totalidad de la recaudación será para el Ayuntamiento.

8.- PERTSONALA	**8.- PERSONAL**
8.1.- OROKORTASUNAK	**8.1.- GENERALIDADES**
Behar beste langile egongo da eta gaitasuna izango dute zerbitzua behar den moduan emateko, eta hala behar izanez gero prestakuntza jaso beharko dute, zerbitzuaren berezkoak diren jarduerei dagokienez, bai eta prebentzioari, osasunari eta laneko segurtasunari dagokienez ere.	El personal habrá de ser suficiente y capacitado para la adecuada prestación del servicio y si es necesario deberá recibir formación en cuanto a actividades propias del servicio, así como de prevención, salud y seguridad laboral, etc.
Langileak, egunerako zereginetan, arreta eta begirune handiz portatuko dira.	Los trabajadores en su quehacer diario se comportarán con total diligencia y decoro.
Administrazio eta funtzio egitura bat eduki behar da, erantzukizun eta autoritate esleipen logiko eta zehatzarekin, antolaketa seguru eta arduratsua sortzeko, lortu nahi diren helburuei egokiturik.	Se deberá disponer de una estructura administrativa y funcional con una lógica y precisa asignación de responsabilidades y autoridad para crear una organización segura y responsable, adecuada a los objetivos deseados.
Objekturen bat agertzen bada autobusetan edo bus geltokietan, eta horrek balio bereziren bat izanez gero, BAZen entregatu beharko da, haren jabeak berreskuratu dezan, ahal bada.	Los objetos que pudieran tener algún valor especial y que aparezcan en los autobuses o paradas, deberán ser entregados en el BAZ, con vistas a su posible recuperación por sus dueños.
8.2.- PLANTILA	**8.2.- PLANTILLA**
Adjudikaziodunak behar diren langileak edukiko ditu zerbitzua behar den moduan emateko.	El adjudicatario dispondrá del personal necesario para el buen funcionamiento del servicio.
Lizitatzaileak beharrezkoa den zuzeneko langileak aurkeztuko ditu, datu hauekin: identifikazioa, kategoria	El licitador presentará el personal directo necesario con los siguientes datos: identificación, categoría.
Edozelan ere, behar beste langile izan behar da zerbitzua emateko, eta zerbitzuaren ezaugarriak direla-eta edozein ordezkapen berehala egin beharko da.	En todo caso deberá contarse con el personal suficiente para la prestación del servicio, y debido a las características de este, cualquier sustitución deberá realizarse de forma inmediata.
8.3.- LANGILEEI DAGOZKIEN BETEBEHARRAK	**8.3.- OBLIGACIONES EN CUANTO AL PERSONAL**
Kontratista arduratuko da langileen baldintzak egokitzeaz indarrean dagoen legedian xedatutakoari. Zerbait ez bada betetzen, kontratistaren erantzukizuna izango da, ez beste inorena.	El contratista se responsabilizará de ajustar las condiciones del personal a lo dispuesto en la Legislación vigente. Cualquier incumplimiento será de exclusiva responsabilidad del contratista.
Agiri honen eta ondorengo adjudikazio kontratuaren xede diren zerbitzuak	El personal adscrito a la prestación de los servicios objeto del presente Pliego y del

emateari atxikitako langileek ez dute izango inolako lan harremanik udalarekin, ez kontratuaren indarraldian, ez kontratua amaitu edo suntsiarazten denean.	ulterior contrato de adjudicación, no tendrá relación laboral alguna con el Ayuntamiento durante la vigencia del contrato ni al término o resolución de este.
Ezelan ere ezin izango zaio eskatu erantzukizunik udalari, eta hark ez du izango ezelako erantzukizunik kontratistaren eta haren langileen arteko erreklamazioetan.	En ningún caso podrá exigirse responsabilidad alguna al Ayuntamiento, y éste quedará totalmente exento de responsabilidad sobre las reclamaciones entre el contratista y su personal.
8.4.- KOMUNIKAZIOAK	**8.4.- COMUNICACIONES**
Lizitatzaileak komunikazio sistema bat izan beharko du, lanaldian enpresaren ordezkari bat lokalizatzeko moduan, eta horrek ahalmena izango du gai teknikoak zein administratiboak konpontzeko.	El licitador deberá tener un sistema de comunicación de tal forma que durante la jornada laboral se pueda localizar a un representante de la empresa con poder para solventar cuestiones tanto técnicas como administrativas.
Gainera, lizitatzaileak posta elektronikoko helbide bat eman beharko du, eta posta zabalik eduki, udalarekin harremanetan jartzeko, eta enpresa adjudikaziodunak posta hori irakurri beharko du gutxienez egunean behin.	Además, el licitador deberá facilitar y mantener abierta una dirección de correo electrónico con la que poder atender las comunicaciones con el Ayuntamiento y este deberá ser leído por la empresa adjudicataria como mínimo una vez al día.
8.5. – UNIFORMITATEA	**8.5. – UNIFORMIDAD**
Agiri honen zerbitzuei atxikitako langileak egon behar dira behar bezala uniformaturik, identifikatzeko, segurtasunerako eta zerbitzuak zelan ematen diren kontrolatzeko, eta, nolanahi ere, segurtasun eta babes baliabideak izan beharko dituzte, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak eskatzen dituenak.	El personal adscrito a los servicios del presente Pliego deberá estar perfectamente uniformado, en orden a la identificación, seguridad y control de la prestación de los servicios, y que irá dotado, en todo caso, de los medios de seguridad y protección exigidos por la Ley de Prevención de Riesgos Laborables.
Jantzi kopurua eta haien kalitatea erabakiko da beti indarrean dauden hitzarmen kolektiboek adostutakoaren arabera.	La cantidad y calidad del vestuario se regirá en todo momento según lo acordado por los convenios colectivos vigentes.
8.6.- ORDUTEGIA	**8.6.- HORARIO**
Langileen ordutegia zerbitzuaren beharretara egokituko da, eta sektoreko lan hitzarmena errespetatuko da.	El horario del personal se ajustará a las necesidades del servicio y respetando el convenio laboral del sector.

9.- IBILGAILUA	**9.- VEHICULO**
Zerbitzua emateko autobusa behar dela aurreikusten da.	Para la prestación del servicio se prevé que es necesario un autobús.
Edozelan ere, lizitatzaile bakoitzak aurreikusi beharko du autobusak ordezteko sistema bat, bermatuko duena autobus ordezko bat gehienez ere 3 orduan.	No obstante, cada licitador deberá prever un sistema de autobuses, que garantice un autobús sustituto en un tiempo máximo de 3 horas.
Lizitatzaile bakoitzak memoria teknikoan azaldu beharko du zerbitzuan erabili behar diren autobusek zer ezaugarri izango dituzten. Eta C gutun azalean, horien kostua.	Cada licitador deberá presentar un documento con las características del/los autobuses a utilizar en el servicio.
Zerbitzua beste zerbitzu bati atxikitako autobusekin eman ahal izango da. Eskaintzan adierazi beharko da.	El servicio se podrá dar con autobuses adscritos a otro servicio. Aspecto que hay que indicar en la oferta.
9.1.- IBILGAILUEN BALDINTZA OROKORRAK	**9.1.- VEHÍCULOS-CONDICIONES GENERALES**
Autobusak gutxieneko ezaugarri hauek izan beharko ditu:	El autobús deberá tener las siguientes características mínimas:
- Arrapalaz egokitua	- Adaptado con rampa
- 8 m-tik beherako luzera.	- Largura no superior a 8 m.
- Gutxienez 12 pertsona eserita, 12 pertsona zutik eta gurpil-aulki baterako lekua.	- Capacidad Mínima 12 personas sentadas, 12 personas de pie y espacio reservado para una silla de ruedas.
- Klimatizazio-sistema.	- Sistema de climatización.
Ibilgailuak zertarako, helburu horretarako eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte, eta errespetatu beharko dute ibilgailuei aplikagarri zaien araudian ezarritakoa.	Todos los vehículos tendrán las condiciones requeridas para el fin a que estén destinados y deberán respetar lo establecido por la normativa que le sea aplicable.
Enpresak, bere jardueren edo zerbitzuen ondorioz, sortzen badu hondakin arriskutsurik eta bizigaberik, arduratuko da horiek eramateaz eta egoki kudeatzeaz.	La empresa será responsable de la retirada y correcta gestión de los residuos peligrosos e inertes que genere como consecuencia de sus actividades o servicios.
Zerbitzu egoerek, kontratatutakoak baino bitarteko gutxiago izanez gero, fakturazioaren doikuntza ekonomikoa ekarriko dute, benetan erabilitako bitartekoen arabera.	Las situaciones de servicio con medios inferiores a los contratados darán lugar al ajuste económico de la facturación, conforme a los medios realmente empleados.
Emakidadunak nahitaez jarri beharko du bere kontura eta ezelako konpentsazio	El concesionario tendrá la obligación de reponer por su cuenta y sin

ekonomiko barik kontratan jasotako edozein material, baldin eta kontratan baja eragiten badu kontsumitu egin delako, lapurtu egin dutelako, hondatu egin delako edo beste edozein arrazoi dagoelako.	compensación económica alguna, cualquier material incluido en la contrata y que, por su consumo, sustracción, deterioro o cualquier otra circunstancia causa baja en el mismo.
9.2.- IBILGAILUEN MANTENTZEA	**9.2.- MANTENIMIENTO DE LOS VEHÍCULOS**
Emakidadunaren ardura izango da beharrezkoak diren mantentze lanak egitea ekipamendua eta ibilgailuak egoera orokor onean egoteko, bai maila mekanikoan, bai higienikoan (barrukoa eta kanpokoa).	Será de responsabilidad del concesionario realizar las labores de mantenimiento necesarias para que el equipamiento y los vehículos se encuentren en un estado general bueno, tanto a nivel mecánico como higiénico (interior y exterior).
Mantentze operazioak egingo dituzte indarrean dagoen araudiaren arabera.	Las operaciones de mantenimiento se realizarán de acuerdo con la normativa vigente.
10.- BILLETEEN MEKANIZAZIOA	**10.- MECANIZACIÓN DEL BILLETAJE**
Ibilgailuek Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren plataforma teknologikora konektatzeko behar diren gailuak eduki ahal izango dituzte.	Los vehículos podrán estar provistos de los dispositivos necesarios que permitan su conexión a la plataforma tecnológica de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa – MUGI.
Udalak bere gain hartuko du Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza - MUGIk eskainiko dizkion zerbitzuen kostua, baita ere, sisteman sartuta dauden gaur egungo operadoreek ordaindu behar dituzten komisioak txartelak hornitu, banatu, saldu, kargatu eta kargatzeko, Arrasateko herribusetan billete bakarra erabiltzeari dagokion zatian.	El Ayuntamiento se hará cargo del coste de los servicios que le va a prestar el centro de compensación Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa - MUGI, así como las comisiones que los actuales operadores integrados en el sistema deben abonar para el suministro, distribución, venta, carga y recarga de las tarjetas, en la parte correspondiente a los usos del Billete Único en los autobuses urbanos de Arrasate.
11.- INSTALAZIOAK.	**11.- INSTALACIONES.**
Kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, eta eman beharreko zerbitzuak behar bezala funtzionatu dezan bermatzeko, adjudikaziodunak, Arrasateko udalerriko erdialdetik errepidez 15 kilometroko gehieneko distantzia batean, nahiko instalazio eduki behar du kontratu honetako betebeharrak betetzeko,	Dadas las características del contrato, y al objeto de garantizar un correcto funcionamiento del servicio a prestar, la empresa adjudicataria deberá de disponer, en una distancia máxima de 15 kilómetros por carretera desde el centro del municipio de Mondragón, de instalaciones suficientes para el

bulegoei, aldagelei, biltegiei eta zerbitzuaren ibilgailuetako garajeari dagokienez, konpontze, mantentze, garbitze, desinfektatze, zaintza, eta abarreko lanak egiteko horietan.	cumplimiento de las obligaciones de este contrato en cuanto a oficinas, vestuario, almacenes y garaje de los vehículos del servicio en los que efectuar tareas de reparación y mantenimiento, lavado, desinfección, guardería, custodia, etc.
Lokal horiek indarrean dauden arauak beteko dituzte, laneko segurtasun eta higienekoak, eta beste arau batzuk ere bai, isurketei, ibilgailuen garbiketari, jarduera gogaikarri eta osasungaitzei, eta abarri dagokienez.	Los citados locales cumplirán la reglamentación vigente de Seguridad e Higiene en el Trabajo, así como la diferente reglamentación en cuanto a vertidos, limpieza de vehículos, actividades molestas e insalubres, etc.
12.- KONTROL SISTEMAK	**12.- SISTEMAS DE CONTROL**
Enpresa adjudikazioduna izango da zerbitzuaren kalitatearen erantzule zuzena, eta etengabe kontrolatuko ditu kalitatearekin zerikusia duten alde guztiak, egokitzat jotzen duen sistemaren bidez.	La empresa adjudicataria será directamente responsable de la calidad del servicio, controlando continuamente todos los aspectos con él relacionados por el sistema que considere oportuno.
Adjudikaziodunak ardura izango du etenik gabe zerbitzuaren kalitateaz, eta hori da puntualitatea, ibilgailuak barrutik eta kanpotik garbitzea, jarrera egokia izatea erabiltzaileekin, azkar erantzutea eskaerei eta kexei, informazioa ematea geltokietan, segurtasuna, erosotasuna eta abar.	El adjudicatario velará de forma permanente por la calidad del servicio, entendiendo como tal la puntualidad, limpieza exterior e interior de los vehículos, educación en el trato con los usuarios, prontitud en la respuesta a las peticiones o quejas, información en las paradas, seguridad, comodidad, etc.
Gainera, kontratatutako zerbitzuak eten barik ikuskatu eta zainduko ditu udalak, izan ere, koordinatu, kontrolatu eta, oro har, egiaztatu eta ziurtatu behar baita zerbitzuak eskakizun operatiboak eta kalitate helburuak betetzeko moduan daudela.	Además, los servicios contratados, estarán sometidos permanentemente a la inspección y vigilancia del Ayuntamiento para coordinar, controlar y en general verificar y asegurar que la prestación de los servicios esté en condiciones de satisfacer las exigencias operativas y los objetivos de calidad de los servicios.
Udalak ikuskatu ahal izango du emakidaren baldintza teknikoak betetzen diren edo ez, emakidari atxikitako ibilgailuen eta instalazio finkoen egoerari dagokionez nahiz zerbitzuaren inguruabarrei dagokienez (ibilbidea, ordutegiak, tarifak eta abar).	El Ayuntamiento podrá inspeccionar el cumplimiento de las condiciones técnicas de la concesión, tanto en lo referente al estado de los vehículos e instalaciones fijas adscritas a la concesión como a las circunstancias del servicio (itinerario, horarios, tarifas, etc.).

Udalak ahalmena izango du kalitate inkestak egiteko.	El Ayuntamiento se reserva la facultad de realizar las oportunas encuestas de calidad.
Udalak eskatzen dionean, adjudikaziodunak txostenak eta azterlanak prestatu beharko ditu, zerikusia dutenak kontrata honen zerbitzuarekin.	El adjudicatario queda obligado también a preparar cuantos informes y estudios relacionados con el servicio de esta contrata que le sean solicitados por el Ayuntamiento.
Zerbitzuaren amaieran, adjudikaziodunak egun, geltoki eta ordu bakoitzeko bidaiari kopurua jasotzen duen taula bat aurkeztu beharko du. (3. ERANSKINA)	El adjudicatario al final del servicio deberá presentar un cuadro con el número de pasajeros por día, parada y hora. (ANEXO 3)
12.1.- LAN PARTEAK	**12.1.- PARTES DE TRABAJO**
Adjudikaziodunak, zerbitzua abian jarri eta gero, aldizka lan parte hauek (euskarri informatikoan) aurkeztu behar ditu:	El adjudicatario una vez puesto en marcha el servicio deberá presentar periódicamente los siguientes partes de trabajo (en soporte informático):
a.- Berehalako lan partea (ordubetean)	a.- Parte inmediato (en plazo de 1 hora).
- - Intzidentzien berri ematea, zerbitzua aldatzen derrigortzen duten egoerei buruz, ordutegiei, autobus kopuruari, lineei eta abarri dagokienez.	- Comunicación de incidencia relativas a aquellas situaciones que obliguen a modificar el servicio en cuanto a horarios, número de autobuses, líneas, etc.
b.- Hileko lan partea.	b.- Parte mensual.
- Langileak: gidari bakoitzaren lan egoeraren laburpena, istripuen bajak, gaixotasuna, absentismoa, ordezkapenak, egutegia eta lan grafikoak.	- Personal: resumen de la situación laboral, bajas por accidente, enfermedad, absentismo, sustituciones, calendario y gráficos de trabajo de cada conductor.
- Ibilgailuak: mantentze lana, ibilgailuetan egindako konponketak, bai eta detektatutako matxurak eta intzidentziak ere.	- Vehículos: mantenimiento, arreglos realizados en los vehículos, así como las averías e incidencias detectadas.
- Billete arruntaren kontrola (papera).	- Control de billete ordinario (papel).
13.- ZERBITZUAREN PREZIOA ETA ZERBITZUA ZELAN ORDAINDU	**13.- PRECIO Y FORMAS DE PAGO DEL SERVICIO**
Bi aukera eman daitezke:	Se podrán dar dos opciones:
Zerbitzua MUGI txartelarekin ordain badaiteke, indarrean dagoen 3. hiri-tarifa aplikatuko da.	Para el caso de que se pueda abonar el servicio con la tarjeta MUGI, se aplicará la tarifa urbano 3 vigente.
Eskudirutan bakarrik ordain badaiteke, bidaia baten kostua 0,50 €-koa izango da.	Para el caso de que únicamente se pueda abonar en metálico el coste de un viaje será de 0,50 €

Adjudikaziodunak ordaindu beharko ditu billete arruntak erosteko gastuak.	El adjudicatario deberá sufragar los gastos de compra de los billetes ordinarios.
14.- BILLETEAREN PREZIOAK BERRIRO AZTERTZEA	**14.- REVISIÓN PRECIOS DEL BILLETE**
Prezioak ezarriko ditu MUGI - Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak une bakoitzean.	En cada momento serán los fijados por la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa – MUGI.
15.- ZERBITZUAREN ALDAKETAK	**15.- MODIFICACIONES DEL SERVICIO**
Udalak zerbitzuaren ezaugarriak aldatu ahal izango ditu, interes publikoko arrazoiengatik.	El Ayuntamiento podrá modificar por razones de interés público, las características de servicio adjudicado.
Ez dira hartuko kontratu aldaketatzat ibilbideak aldi batez edo noizean behin aldatzen badira kaleak ixteagatik bide publikoan obrak eta beste ekintza batzuk egitearen ondorioz, edo urte sasoiko beste inguruabar batzuen ondorioz.	No tendrán la consideración de modificación de contrato las alteraciones temporales o puntuales de itinerario por cortes de calle a causas de obras y diferentes tipos de actos en la vía pública, u otras circunstancias de carácter estacional.
Edozein aldaketa egiteko, udalak baimena eman beharko du aldez aurretik; nolanahi ere, zerbitzua berehala emango bada eta adjudikaziodunak premiazko neurriak hartzea komeni bada, horiek berehala jakinaraziko zaizkio udalari.	Todo tipo de modificación deberá ser previamente autorizada por el Ayuntamiento, sin perjuicio de aquellas situaciones en que la inmediatez para la prestación del servicio aconseje que el adjudicatario adopte medidas urgentes, en cuyo caso éstas deberán ser inmediatamente comunicadas al Ayuntamiento.
Adjudikaziodunak proposamenak egin ahal izango ditu zerbitzua aldatze alde, zerbitzua bera hobetzeko edo haren kostua gutxitzeko, udalak aztertu dezan.	El adjudicatario podrá realizar propuestas de modificación del servicio, encaminadas a mejorarlo o a reducir el costo de este para su estudio por parte del Ayuntamiento.
16.- NAHITAEZ BETE BEHARREKO INGURUMENEKO GAIAK	**16.- TEMAS MEDIOAMBIENTALES DE OBLIGADO CUMPLIMIENTO**
16.1.- PROPULTSIO BIDEA	**16.1.- MEDIO DE PROPULSIÓN**
Lizitatzaileek adieraziko dute eskaintzan aurkeztutako ibilgailuek zer propultsio bide erabiliko duten.	Los licitadores indicarán el medio de propulsión a utilizar por los vehículos presentados en su oferta.
16.2.- MATERIALAK ETA ONTZIAK	**16.2.- MATERIALES Y ENVASES**
Produktuen ontziek indarrean dagoen araudia beteko dute, behar bezala etiketatuta, biltegiratuta, eta beharrezkoak	En cuanto a los envases de los productos cumplirán la normativa vigente al respecto, correctamente etiquetados,

diren dosifikazio aparatuak eduki beharko dituzte.	almacenados y deberán tener los aparatos de dosificación precisos.
Erabili beharreko materialek ez dute sortuko kutsadurarik ingurumenean, ezta hondakin uretan ere, indarrean dagoen legediaren arabera.	Los materiales para utilizar no producirán contaminación en el ambiente, ni en aguas residuales de acuerdo con la legislación vigente.
Ibilgailuen eta makinen mantentze lanak egingo dira indarrean dagoen araudiaren arabera.	Las operaciones de mantenimiento de vehículos y máquinas se realizarán de acuerdo con la normativa vigente.
16. 3.- ZARATAK	**16. 3.- RUIDOS**
Ibilgailuek indarrean dagoen legedia bete beharko dute.	Los vehículos deberán cumplir la legislación vigente.
Adjudikaziodunak soinu igorpenak zainduko ditu, horiek neurri handian ibilgailuen erabileraren eta mantentze lanen mende baitaude.	El adjudicatario cuidará las emisiones sonoras que dependen en gran medida de la forma de utilización de los vehículos y de su estado de mantenimiento.
16.4.- MAKINAK, GAS EMISIOAK	**16.4.- MAQUINARIA, EMISIÓN GASES**
Ibilgailu erosi berriek gutxienez nahitaezko araudia bete beharko dute, kontratuaren hasieran indarrean dagoena.	Los vehículos de nueva adquisición tendrán que cumplir como mínimo la normativa obligatoria vigente al inicio del contrato.
16.5.- HONDAKIN ARRISKUTSUAK	**16.5.- RESIDUOS PELIGROSOS**
Olio lubrifikatzaileak eta ibilgailuen eta makinen beste produktu batzuk bereizita jasoko dira, eta horiek kudeatuko dira kudeatzaile baimendu baten bidez.	Los aceites lubricantes y otros productos de vehículos y maquinaria se recogerán separadamente y gestionarán a través de gestor autorizado.
16.6.- BESTE HONDAKIN BATZUK	**16.6.- OTROS RESIDUOS**
Gainontzeko hondakinen kasuan, bereiziko dira hiriko gaikako bilketa frakzioetan, eta bide publikoko edukiontzietan utziko dira.	Para el resto de los residuos, se separarán en las fracciones de recogida selectiva urbana y se depositarán en los contenedores de la vía pública.
17.- "PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK" ("C" Gutun azalean)	**17.- "PROPOSICIÓN ECONÓMICA Y MEMORIA EXPLICATIVA (SOBRE ÚNICO)**
Gutun azalean aurkeztu beharko dira:	En el sobre se deberá presentar:
1) proposamen ekonomikoa, administrazio agirian adierazitako ereduari egokiturik.	1) La proposición económica ajustada al modelo indicado en el pliego administrativo.
Proposamen ekonomikoa, egokitua administrazio agiri honetako II. eranskinaren ereduari. Eta barneratu behar dituenak:	Proposición económica ajustada al modelo del Anexo II del presente Pliego Administrativo. Y que debe contener:
.- Eskaintza ekonomikoa	.- Proposición económica.

.-Emakume eta gizonen berdintasunerako irizpideari dagokionez eskaintza.	.- Propuesta respecto a la cláusula de igualdad de mujeres y hombres.
.- Erregai alternatibo bidez propultsatutako ibilgailua zerbitzura atxikitzeko irizpideari dagokionez eskaintza.	.- Propuesta en relación con el criterio de adscripción al servicio del vehículo propulsado por combustible alternativo.
.- Ibilgailuaren antzinatasunari dagokionez eskaintza.	.- Propuesta en cuanto a la antigüedad del vehículo.
.- Mugikortasun urriko kasuetarako sarbide-arrapalaren kokapenari dagokionez eskaintza.	.- Propuesta en cuanto a la ubicación de la rampa de acceso para casos de movilidad reducida.
.- MUGI sisteman txartelaz ordaintzeko aukerari dagokionez eskaintza.	.- Propuesta de pago con tarjeta en el sistema MUGI.
18.- DIRULAGUNTZA PUBLIKOAK ETA PRIBATUAK	**18.- SUBVENCIONES PÚBLICAS Y PRIVADAS**
Emakidadunak uko egingo die, udalaren alde, jaso ditzakeen dirulaguntza guztiei edo beste edozein laguntzari, zerbitzua ustiatzeko badira, izan publikoak edo pribatuak.	El concesionario renunciará a favor del Ayuntamiento a todas las posibles subvenciones económicas o a cualquier otro tipo de ayuda destinada a la explotación del servicio, ya sean públicas o privadas.
Emakidadunak dirulaguntzaren bat lortuz gero, hura udalari eskualdatuko dio.	En caso de que el concesionario logre cualquier tipo de subvención deberá traspasarla al Ayuntamiento.
19.- PUBLIZITATEA	**19.- PUBLICIDAD**
Udalak eskubidea du, eta halaxe gordetzen du beretzat, publizitatea emateko, dela geltokietan, dela autobusetan, bere konpromiso instituzional edo pribatuak betetzeko. Gainera, udalak berak edozein publizitate kudeatzen duen kasuetan, diru sarrerak udalarentzat berarentzat izango dira erabat.	El Ayuntamiento se reserva el derecho de conceder la publicidad, sea en los puntos de parada sea en los autobuses, para cumplir con sus compromisos institucionales o privados. Además, en aquellos casos en los que el propio Ayuntamiento gestione cualquier publicidad los ingresos serán íntegramente para el propio Ayuntamiento.
Adjudikaziodunak zuzenean kudeatzen badu publizitateren bat, hura jartzea udalak onartu beharko du aurretik, eta hortik eratorritako diru sarrerak % 50ean banatuko dira emakidadunaren eta Arrasateko Udalaren artean.	En los casos en los que el adjudicatario gestione directamente algún tipo de publicidad, su colocación requerirá de aprobación previa del Ayuntamiento y los ingresos derivados se repartirán al 50 % entre el propio concesionario y el Ayuntamiento de Arrasate.

Esp. kod.: 2025CHOZ0015
Titularra: Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoak

Gaia: Udaran autobus zerbitzua Udala auzora
Hasiera eguna: 2025/03/05

Arrasate, 2025eko martxoaren 18a

Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako arloburua

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

MOISES ALTUNA EGUREN
2025/03/18

Hiri Zerbitzuen Teknikaria



ARANA,ABARRATEGUI,AMAIA
2025/03/18

Esp. kod.: 2020CHOZ0004
Titularra: Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoak

Gaia: Herribus zerbitzua adjudikatzeko agiriak
Hasiera eguna: 2020/02/14

1. ERANSKINA – ZERBITZU EGUTEGIA / ANEXO 1- CALENDARIO DEL SERVICIO

2025KO EGUTEGIA

JUNIO Dias: 2 2 2

Lu	Ma	Mi	Ju	Vi	Sa	Do
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

JULIO Dias: 3 4 5

Lu	Ma	Mi	Ju	Vi	Sa	Do
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

AGOSTO Dias: 4 5 6

Lu	Ma	Mi	Ju	Vi	Sa	Do
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

SEPTIEMBRE Días 2 2 2

Lu	Ma	Mi	Ju	Vi	Sa	Do
						1
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	29
29	30					

	Ostiralak / Viernes	11
	Larunbatak / Sábados	13
	Domingos y festivos / Igande eta jai egunak	15

2026KO EGUTEGIA

JUNIO Dias: 2 2 2

Lu	Ma	Mi	Ju	Vi	Sa	Do
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

JULIO Dias: 4 3 6

Lu	Ma	Mi	Ju	Vi	Sa	Do
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

AGOSTO Dias: 4 4 6

Lu	Ma	Mi	Ju	Vi	Sa	Do
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						


SEPTIEMBRE Días 2 2 2

Lu	Ma	Mi	Ju	Vi	Sa	Do
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

	Ostiralak / Viernes	12
	Larunbatak / Sábados	11
	Domingos y festivos / Igande eta jai egunak	16

Cód. Exp.: 2020CHOZ0004
Titular: MANTENTZE ETA AUZOAK OBRA ZERBITZU
Asunto: Hiri autobus zerbitzua adjudikatzeko pleguak
Fecha de Inicio: 14/02/2020

2. ERANSKINA ibilbidearen eta geralekuen planoa
ANEXO 2 plano del recorrido y paradas



SAN FRANTSIZKO	ERGUIN	UDALA	ERGUIN	SAN FRANTSIZKO
10:00	10:05	10:15	10:25	10:30
11:00	11:05	11:15	11:25	11:30
12:00	12:05	12:15	12:25	12:30
13:00	13:05	13:15	13:25	13:30
14:00	14:05	14:15	14:25	14:30
14:30	14:35	14:45	14:55	15:00
15:00	10:05	10:15	10:25	10:30
15:30	15:35	15:45	15:55	16:00
16:00	16:05	16:15	16:25	16:30
16:30	16:35	16:45	16:55	17:00
17:00	17:05	17:15	17:25	17:30
18:00	18:05	18:15	18:25	18:30
19:00	19:05	19:15	19:25	19:30
20:00	20:05	20:15	20:25	20:30
21:00	21:05	21:15	21:25	21:30

3. ERANSKINA Bidaiari kopurua egun, geltoki eta ordu bakoitzeko
ANEXO 3 Número de pasajeros por dias, paradas y horas

	Xx/xx/2025	
	HORARIO	PASAJEROS
SAN FRANTZISKO	10:00	
ERGUIN	10:00	
UDALA	10:15	
SAN FRANTZISKO	11:00	
ERGUIN	11:00	
UDALA	11:15	
SAN FRANTZISKO	12:00	
ERGUIN	12:00	
UDALA	12:15	
SAN FRANTZISKO	13:00	
ERGUIN	13:00	
UDALA	13:15	
SAN FRANTZISKO	14:00	
ERGUIN	14:00	
UDALA	14:15	
SAN FRANTZISKO	14:30	
ERGUIN	14:30	
UDALA	14:45	
SAN FRANTZISKO	15:00	
ERGUIN	15:00	
UDALA	15:15	
SAN FRANTZISKO	15:30	
ERGUIN	15:30	
UDALA	15:45	
SAN FRANTZISKO	16:00	
ERGUIN	16:00	
UDALA	16:15	
SAN FRANTZISKO	16:30	
ERGUIN	16:30	
UDALA	16:45	
SAN FRANTZISKO	17:00	
ERGUIN	17:00	
UDALA	17:15	
SAN FRANTZISKO	18:00	
ERGUIN	18:00	
UDALA	18:15	
SAN FRANTZISKO	19:00	
ERGUIN	19:00	
UDALA	19:15	
SAN FRANTZISKO	20:00	
ERGUIN	20:00	
UDALA	20:15	
SAN FRANTZISKO	21:00	
ERGUIN	21:00	
UDALA	21:15	